BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4910

EBAZPENA, 2014ko urriaren 14koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinen bidez argitara ematen baitira 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimena emateari buruzko ebazpenak.

GERTAKARIAK

1.– 2014ko urriaren 13an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako ebazpen hau eman zen argitara: «Ebazpena, 2014ko irailaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak argitara emateko dena».

2.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2014ko urriaren 9ko Aginduaren bidez, aintzat hartu zen Osarten Koop. Elkartea prebentzio-zerbitzuak Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2014ko irailaren 17ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoa. Ebazpen horren bidez, argitara eman ziren 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak, eta baimena eman zitzaion Osarten Koop. Elkartea prebentzio-zerbitzuari 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza eskaintzeko, araudiaren eta teknikaren arloetan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimen eta diru-laguntza deialdia iragartzeko 2014ko ekainaren 18ko Ebazpenaren 10. artikuluaren arabera, «Osalaneko zuzendari orokorrari dagokio, ebaluazio-batzordearen proposamenez, ebazpen bidez baiestea eta ezestea prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko jasotako baimen-eskabideak».

2.– Aipatu ebazpenaren 5.6 artikuluaren arabera, «publizitatearen ondorioetarako, ebazpen egokiak argitaratu beharko dira EHAAn, prestakuntza emateko baimenari zein diru-laguntzari dagokionez».

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimena emateari buruzko ebazpena, Osarten Koop. Elkartea prebentzio-zerbitzuari dagokionez prebentzioko ordezkarien 2014ko ekitaldirako oinarrizko prestakuntza eskaintzeko, araudiaren eta teknikaren arloetan, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2014ko irailaren 17ko Ebazpenaren I. eta II. eranskinetan ageri diren entitateen zerrendan sartzea. Ebazpen horren bidez, argitara eman ziren 2014ko ekitaldirako prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenari buruzko ebazpenak.

Bigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osalaneko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2014ko urriaren 14a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
IZASKUN URIEN AZPITARTE.